



## **ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

1. Erabateko ezagutza eta kontzientzia osoa ditut IGERIKETA entrenamenduetan zein kirol-probetan parte hartzeak COVID-19az kutsatua izateko arriskua dakarrela, eta horretaz jabetzen naiz eta onartzen dut, ondo ulertuta eskubidea izango dudala erreklamazio egokiak aurkezteko protokoloetan ezarritako babes- eta komunikazio-arauak bete ez dituzten pertsonen aurka, bereziki kirol-proban parte hartu duen kirolariren bat izan denean.
2. Koronabirusarekin SARS- CoV-2 bateragarria den sintomarik ez dudala (37,5 graduko edo gehiagoko sukarra, eztula, ondoez orokorra, aire-faltaren sentsazioa, dastamena galtzea, buruko mina, nekea, lepoko mina, giharretako mina, gorakoak, beherakoa) edo ezta infekzioen ohiko beste edozein sintomarik ere.
3. Ez dudala positiborik eman eta ez dudala harreman esturik izan COVID-19 sintomatologia posiblea edo baieztatua duen pertsona batekin edo batzuekin dokumentu hau sinatu aurreko 14 egunetan.
4. Irakurri ditudala kirol-lehiaketa eta -probaren antolatzaileek ezarritako COVID-19aren aurkako segurtasun eta higiene prebentzio-neurriak, eta onartzen dudala horiek guztiak arduraz betetzea, bertan ezartzen diren jokabide- eta portaera-jarraibideak betez, eta onartzen dut ekitaldiaren higiene-arduradunek motu propioa ados dezaketela ni lehiaketatik eta kirol-espazioaren instalazio edo eremu mugatutik kanpo uzteko, neurriak bete ezean.
5. Antolatzaileei COVID-19arekin bateragarria den edozein sintoma jakinarazteko konpromisoa hartzen dut, positibo eman izanagatik edo familia-ingurunean edo ingurune hurbilean ustezko edo baieztatutako koronabirus kasuren bat egon izanagatik, eta ondorioz, baita parte ez hartzeko konpromisoa ere.

Informazio hau isilpean tratatuko da, Zarautz-Zarautz lasterketan zehar birusa ez kutsatzeko eta ez zabaltzeko beharrezko neurriak hartu ahal izateko.

Era berean, dokumentu hau sinatuta, adierazten da badakidala zein diren gaur egun osasun-agintaritzen arabera indarrean dauden babes- eta higiene-neurri espezifikoak, eta ezagutu eta errespetatu egiten dela Zarautz-Zarautz lasterketa egiteko probaren memorian adierazitako jarduketa-prozedura.

Lehen aipatutako arauak betetzea parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna da eta antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango proba jokatzean gerta litezkeen kutsapenei dagokienez.

Zarautzen, 2021eko uztailaren 24-25ean,

Izena: .....

Abizena:.....

NAN:.....

Sinadura: